BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Nota de prensa**

29 de junio. Comisión de Agricultura y Medio Ambiente.

# Las Juntas Generales rechazan realizar un estudio sobre la posibilidad de instalar un Gran Acuarium Oceanográfico

**Bilbao, a 29 de junio de 2012**. La Comisión de Agricultura y Medio Ambiente, reunida esta mañana en Bilbao ha rechazado una Proposición No de Norma del Grupo Popular para que la Diputación hiciera un estudio sobre la viabilidad de construir un Gran Acuarium Oceanográfico en Bizkaia. La iniciativa ha recibido el rechazo de los grupos Nacionalistas Vascos y Bildu. Sus 9 representantes en el órgano parlamentario han sido suficientes para desestimar la propuesta, frente a los 4 apoderados que suman los populares y socialistas.

La propuesta popular planteaba que la Universidad del País Vasco y las diversas sociedades científicas, además del Gobierno Vasco, se involucrasen en un proyecto que no debe tener tan solo un carácter divulgativo, sino también "investigador y científico", en donde se incluyan diferentes infraestructuras, tales como diferentes piscinas para mamíferos marinos y delfines, un museo especializado, salas para la investigación o dependencias hosteleras, entre otras. El apoderado del Grupo Popular, Arturo Aldekoa, ha planteado una infraestructura similar a la construida en Valencia que podría servir para atraer un turismo más familiar, ya que según él estamos "poniendo todos los huevos en inversiones culturales y hay que buscar un equilibrio entre el turismo cultural y el familiar".

El grupo socialista ha sido el único que ha apoyado la propuesta. Su apoderado, Joaquín Colmenero, ha justificado este apoyo porque la Diputación tiene capacidad financiera para hacer un estudio "exhaustivo y riguroso" sobre este asunto y ha mantenido que pese a la crisis no es momento para frenar iniciativas. "Si nos paramos, no sé si tendremos un futuro".

En el lado contrario se han situado los Grupos Nacionalistas Vascos y Bildu. Ambos grupos piensan que no es el momento oportuno. "La realidad no es la más idónea para abordar esta infraestructura. Los recursos no son infinitos y es el momento de apretarse el cinturón", según la apoderada nacionalista María Presa, que ha recordado que hace cuatro años ya se hizo un estudio parecido que concluía que una infraestructura de estas características era un "riesgo", por su inversión "elevada" y porque podría "clausurar" otras instalaciones cercanas. En este punto, el grupo Bildu ha coincidido porque entienden que puede "chocar y ser perjudicial" para otras infraestructuras parecidas que existen en Euskadi como el acuario de Donostia o el de Getxo.

Por otro lado, la Comisión ha aprobado por unanimidad las otras dos proposiciones no de norma que presentaba el Grupo Popular Vizcaíno. Las Juntas Generales instarán por tanto a la Diputación Foral a "participar activamente en todos aquellos foros e iniciativas que las demás administraciones competentes pongan en marcha para estudiar los efectos del cambio climático en Bizkaia y prevenir, paliar o corregir sus posibles efectos". Esta iniciativa surge después de conocer un informe realizado por el centro tecnológico AZTI-Tecnalia que "sintetiza" la información existente sobre el cambio climático observado y previsto en la costa vasca. Entre las conclusiones de este informe, los científicos afirman que el nivel del mar podría subir entre 29 y 49 centímetros durante el siglo XXI.

Y, por último, el Parlamento de Bizkaia se ha manifestado favorablemente en relación al acuerdo mayoritario alcanzado recientemente en el Parlamento Europeo que defiende el uso eficiente de los recursos naturales para contribuir al crecimiento económico de la UE y a la protección del medio ambiente. La Cámara vizcaína ha ratificado la "apuesta por el reciclaje de los materiales que se puedan recuperar cuando sea posible técnica y económicamente, y por la valorización del resto de los residuos urbanos", unas medidas que coinciden –según los populares- con la estrategia de tratamiento de los residuos urbanos que desde hace años se están aplicando en Bizkaia.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**Prentsa-oharra**

Ekainak 29. Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordea.

# Bizkaian aquarium ozeanografiko handia jartearen inguruko azterlana egitea ez da onartu Batzar Nagusietan

**Bilbon, 2012ko ekainaren 29ean**. Bizkaiko Batzar Nagusien Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordeak batzarra izan dau gaur Bilbon eta, beste gai batzuen artean, ez dau onartu Bizkaian aquarium ozeanografiko handia jarteko aukerea Foru Aldundiak aztertzea eskatzeko Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena. Euzko Abertzaleak eta Bildu Taldeek aurka bozkatu dabe, eta daukiezan 9 batzarkideen botoak nahiko izan dira ez onartzeko, popularrek eta sozialistek guztira 4 batzarkide baino ez daukiezalako Batzordeetan.

Talde horrek uste dau "Eusko Jaurlaritzak ez eze, Euskal Herriko Unibertsitateak eta gure lurraldean lan egiten daben alkarte zientifikoek be parte hartzea" komeniko litzatekela, "proiektuak ez leukealako bakarrik izan behar zabaldunde izaerakoa, ikerketarako eta izaera zientifikoa be izan beharko leuke eta". Hor zenbait azpiegitura egongo litzatekez, esaterako itsas ugaztunak eta izurdeak ikusi ahal izateko lekuak, museo espezializatua, ikertzaileentzako gelak, liburutegia eta ostalaritzarako lekua, besteak beste. Arturo Aldacoa Talde Popularreko Batzarkideak proposatu dau Valentzian dagoan antzeko azpiegiturea egitea, familien turismoarentzat erakargarria izango litzatekena, bere esanetan "arraultza guztiak kultura azpiegituretan jarten gabilzalako, eta orekea bilatu behar dalako kulturako turismoaren eta familaen turismoaren artean."

Proposamen hori Talde sozialistak bakarrik aldeztu dau. Joaquin Colmenero batzarkide sozialistak esan dau Aldundiak badaukala dirua holako azterlan bati ekin ahal izateko eta gai horren inguruan egin daiten azterlanak "zehatza eta zabala" izan beharko leukela. Esan dau ganera krisialdian egon arren, holako proposamenak ez dirala atzera bota behar: "Geldi bagagoz, ez dakit etorkizunik izango dogun".

Euzko Abertzaleak eta Bildu Taldeak kontra azaldu dira. Talde biok uste dabe ez dala holakoetarako unerik egokiena. "Bizi dogun errealidadea ez da egokiena holako azpiegitura bat egiten hasteko. Baliabideak mugatuak dira eta garrikoa estutzeko ordua da" esan dau Maria Presa Batzarkideak. Eta gogora ekarri dau orain lau urte antzeko azterlan bat egin zala eta hor esaten zala holako azpiegiturea egitea "arriskutsua" zala, inbertsino "handia" eskatzen dauelako eta Bizkaitik hur dagozan antzeko beste instalazino batzuk "izteko arriskuan" jarten ditualako. Bildu Taldea bat etorri da azken arrazoi horretan, uste dauelako "kaltegarria izan leitekela" Euskadin dagozan antzeko beste azpiegitura batzuentzat, esaterako Donostiako edo Getxoko akuariumentzat.

Beste alde batetik, Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamen bi ahobatez onartu ditu Batzordeak. Beraz, Batzar Nagusiek eskatu egingo deutsie Foru Aldundiari "parte hartu dagiala klima aldaketearen eraginak aztertzeko eta eraginok prebenitu, arindu edo zuzentzeko enparauko administrazinoek abiaturik dituen foro eta ekimenetan". Ekimen horren abiaburu izan da AZTI-Tecnaliak oraintsu egindako txosten bat, non "laburtu" egiten dan Euskal Herrirako aurreikusitako klima aldaketeaz dagoan informazinoa. Txosten horren ondorenen artean dago, esaterako zientzilariek dinoela itsasoaren mailak XXI. mendean 29-49 cm igongo dauela.

Azkenik, baliabideak eraginkortasunez erabili dagiazan Europa baten alde Europako Parlamentuak ataratako Erabagi-Proposamenaren alde agertu dira Batzar Nagusiak, "EBaren hazkunde ekonomikoa suspertzen eta ingurumena babesten laguntzeko". Akordio horren barruan be, berretsi egin da, batetik, berreskuratu daitekezan materialak birziklatzea teknikoki eta ekonomikoki egingarria dan guztietan eta, bestetik, osterantzeko uri hondakinak tratatu eta balorizatzea", Popularren aburuz neurriok bat datoz-eta urteak dirala Bizkaian uri-hondakinen arloan aplikatzen diran neurriakaz.